



KUTXA Enplegatuen Elkartea	Xendazaletasun atala
127. zka 1. etapa Ignaziotar Bidea	Loiola-Legazpia/2018-10-20.21

Xendazale adiskideok:

Gaztaren Ibilbidea Zaldibia-Segura zatiarekin amaituta, beste erronka bati aurre egingo diogu: “Ignaziotar Bideari”, hain zuzen ere. Bide hori egin zuen Inazio Loiolakoak 1522. urtean, eta Manresan amaitu zuen.

Beraz, Loiolako santutegian hasten da bidea, Carlo Fontanak, “Bernini” maisu handiaren ikasle aurreratuak, proiektaturiko lan bikainaren aurrean. Lanak 1689an hasi ziren Azpeitiko Ignacio eta Francisco de Ibero arkitektoen zuzendaritzapean.

Handik hurbil dagoen Azkoitiraino joango gara. Hau lehen aldiz 1027. urtean aipatzen da, baina San Martin de Iraurgi izenaz, izen hori duen basilizaren hurbiltasunagatik. 1331n Miranda de Iraurgi deitu zioten, eta azkenean, 1457. urtean, jada Azkoitia izena jarri zioten.

Gure bidea beti Urola ibaitik gertu ibiliko da, eta eroso egingo dugu aurrera. Hainbat zubi zeharkatuko ditugu eta Aizpurutzoko auzora iritsiko gara, San Agustin basiliza oso hurbil dela. Eta pixkanaka Zumarraga-Urretxura iritsiko gara.

Lehenengo datuak XIV. mendekoak dira, bi hiribilduek bat egitea erabaki zutenekoak. Azpimarratzekoa da Jauregi dorretxea, non jaio baitzen Legazpi. Eta herri-gune hau igaro ondoren, gure azken helmugara hurbilduko gara. “Villa Ferrona” edo olagizonen hiribilduari buruzko lehen datuak 1290ekoak dira, Segurako hiribildua sortu zen garaikoak.

Burdinolen artean Mirandaola nabarmentzen da, 1952an berreraikia; udalerriko irteeran dago, Brinkola aldera, eta gogoratu bertara 2017ko martxoaren 11n ere iritsi ginela, Gastaren Ibilbidearen lehen etapan Segura eta Brinkola arteko lehen zatia egin genuenean.

Animo mendizaleok, natura zain dugu eta !!!

Ibilbidea: Loiola-Legazpia

Beharrezko denbora				5,00 ordu							
Goranzko desnibel metatua				384 metro							
Beheranzko desnibel metatua				111 metro							
Zeharretara egin beharreko distantzia				21.060 metro							
	Ertain a	1		Orientazioa	1		Joan-etorria	1		Esfortzua	3

Irteera-lekua	Bilbo plaza (17/24 bus-geralek.) eta Pio XII.aren plaza (24/27 bus-g.)
Aurkezteko ordua	07:40 (Bilbo plaza) eta 07:45 (Pio XII.aren plaza)
Irteera-ordua	07:45 (Pio XII.aren plaza)
Bazkaria	XXXXXXX jatetxea.
Prezioa	31 euro

Izena emateko azken eguna: 2018-10-18ko 12:00etan

Oharra: b/ Eguraldiaren iragarpena txarra izango balitz larunbaterako, igandean egingo litzateke ibilaldia.

b/ Eguraldiaren iragarpenaren arabera, ibilaldia aldatzeko aukera izango dute antolatzaileek.

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-José Ignacio Acuña

Izen-emateak Alberto Lahuertaren bidez egingo dira (656-
721.208/Senderismodad@gmail.com).

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-José Ignacio Acuña